

## **AULESTI / Irudien bidezko ipuin kontaketa egingo da bihar arratsaldean udal liburutegian**

**Antton Irusta eta Enrique Morente egongo dira tailerra osatuagoa izateko; hitzordua 18:00etan ipini dute.**

A. Alkorta

Aulestiko liburutegiak antolatuta, bihar, 18:00etan, irudien bidezko ipuin kontaketa tailerra egongo da liburutegian bertan. Antton Irusta eta Enrique Morentegaz batera, ipuinen munduan barneratuko dira aulestiarrak, beste behin.

Irudien bitartez ipuinak zelan konta daitezkeen ikasteko, udal liburutegiak beste tailer bat antolatu du. Gauzak horrela, tailerra osatuagoa izateko, Antton Irusta ipuin kontalaria eta Enrique Morente egongo dira bertan. Euren esperientzietan oinarrituz, adituek ipuinen munduak zelan funtzionatzen duen azalduko dute, modu erakargarrian. Bertaratzen direnek euren zalantzak argitzeko eta gauza berriak ikasteko aukera edukiko dute.